



1,7 MILIOI LAGUN BAINO GEHIAGO 532 EKITALDIETAN

Aurten 1.707.922 lagun inguru zenbatu dira sanferminetan programatutako 532 ekitaldietan. Oro har, ekitaldi guztiak modu egokian eta normaltasunez egin dira, haurrendako parkeak eta dantza-jaialdia salbu, uztailaren 6an euriagatik bertan behera geratu behar izan baitziren.

2022ko berritasun gisa, Gazteluko plazako gunea gehitu da, zeina DJ saioetara zuzendu baita, honako ordutegi honetan: 19:00etatik 20:50era eta 23:30etik 02:00etara Halaber, 2021ean abiatu ziren sanferminetako literatur ibilbideei ekin zaie berriro, eta Kondestable Civivoxean hainbat erakusketa ikusteko aukera ere izan da, hainbat musika-ikuskizun ere egiteko ateak zabaltzen baitzituen.

Ekitaldi jendetsuak: 630.000 parte-hartzaile

Parte-hartze handia, oro har. Bereziki aipagarria suetan, eguraldi onari esker, hein batean.

- **Su artifizialak:** 438.000 ikusle inguru Yanguas y Mirandan, Armada etorbidean eta Gaztelugibelen
- **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa:** 192.000 lagun

Haur eta familiendako jarduerak: 259.082 parte-hartzaile. Uztailaren 6an, euria zela-eta, haurrendako parkean aurreikusitako jarduerak guztiak bertan behera geratu ziren.

- **JolastuBirjolastu:** 60.000 lagun
- **Hauek Festak Hauek!:** 92.000 lagun
- **SportKids:** 20.652 lagun
- **Haurrendako entzierroak:** 6.400 lagun
- **Kalejira:** 25.700 lagun
- **Txotxongiloak:** 6.880 lagun
- **Haurrendako trenak:** 7.700 bidaiari, Askatasun plaza eta Merindadeen plaza lotzen dituzten trenetan
- **Haurrendako dantza-jaialdia:** 1.800 parte-hartzaile
- **Zezensuzkoa:** 36.000 lagun
- **Animazioa konpartsaren atsedenaldira:** 1.950 lagun

Kontzertuak eta musika-dantzaldiak: 551.800 lagun

Foruen plazako agertoki nagusiaren joera orokorra "edukiera osoa" izan da, bi/hiru egunetan jendeak plazaren mugak gainditzen baitzituen honako kontzertu hauetan: Lola Índigo, La Oreja de Van Gogh eta Camela. Compañía plaza jazzaren eta munduko musikaren erreferentzia izan da. Ikusleen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta kontzertu guztiak oso arrakastatsuak izan dira, hala nola Eliades Ochoa artista kubatarrarena, Lauer alemaniarrena edo Goxua`n Salsa talde iruindarrarena.



Aurtengo berritasuna, Gazteluko plazako DJ gunea, festaren erreferentzia-gune bilakatu da, hala arratsaldetan 'Arratsalde-pasarekin', non gure hiriko profesionalak biltzen baitziren, nola gauetan, 'Sound Fermín' izeneko zikloan, zeinak Iruñera ekarri baititu Espainiako izenik onenetariko zenbait, hala nola Mickey Pavón, ELYELLA, Innmir, Europa FMko Javi Sánchez eta Los 40ko Jorge Sánchez.

- **Foruen plaza:** 138.000 lagun
- **Compañía plaza:** 26.000 lagun
- **Gurutzeko plaza:** 22.300 lagun dantzaldietan
- **Gazteluko plaza:** 296.000 lagun, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan
- **Antoniutti:** 65.500, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan.
- **Musika-bandak:** 4.000 lagun Gurutzeko plazan

Folklore-musika: 198.990 lagun

- **'Jota-soinuak' Sarasate pasealekuan:** 5.800 lagun
- **Dantzaldiak Gazteluko plazan:** 9.000 lagun
- **Uztailaren 6ko folklore-jaialdia, Foruen plazan:** BERTAN BEHERA, euria dela-eta
- **Jauzi-jaialdia Gazteluko plazan:** 1.300 lagun
- **Gaiteroen alardea:** 6.000 lagun
- **Txistularien alardea:** 1.000 lagun
- **Bertso-saioak Sarasate pasealekuan:** 490 lagun
- **Dantza-emanaldiak Sarasate pasealekuan:** 1.400 lagun
- **Musika kalean:** 165.000 lagun

Gazte eremua (Foruen plaza): 5.550 gaztek parte hartu zuten 19:00etatik 22:45era programatutako jardueretan: lantegiak, masterclassak, puzgarriak eta emankizunak, horietako batzuk taldeen udal-poltsatik, beti doan eta parte-hartze librekoak.

Gazte asko pasa dira, halaber, 'Gozatu burua galdu gabe' informazio-gunetik, non arratsaldero, 19:00etatik 22:30era, bi pertsonak eranskailuak eta eskumuturrekoak banatu baitituzte, baita hainbat entitatek prestatutako adikzioen prebentziorako kanpainaren informazioa eskaini ere.

Beste ekitaldi batzuk: 63.500 lagun

- **Txupinazoa (Udaletxe plaza, inguruko kaleak eta pantaila erraldoiak):** 39.500 lagun
- **Herri-kirolak:** 4.280 lagun
- **Kulturen kalejira:** 39 taldetako 1.000 pertsonak parte hartu zuten, eta ibilbidean zehar 4.000 pertsona egon ziren.
- **Haurren eskaintza:** 4.500 lagun
- **Erakusketak:** 1.800 lagun Kondestablearen jauregiko erakusketetan



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

Servicio de Comunicación

IRUÑEKO UDALA

Komunikazio Zerbitzua

- **Kontzertuak Kondestablen:** 1.076 lagun
- **Literatur ibilbideak:** 122 lagun
- **Gayarre antzokia:** 1.122 lagun ikuskizunean
- **Gaixoa ni:** 4.500 lagun
- **Ekitaldi erlijiosoak (bezperak eta zortziurrena):** 1.600 lagun



SALAKETAK

Segurtasun kidego guztien artean **1.969** salaketa jaso dira guztira sanferminetan. 2019an 2.005 izan ziren. Hortaz, salaketak % **1,7 jaitsi** dira. Kasu gehienak, aurreko urteetan bezala, **lapurretak** izan dira (guztizkoaren % **66**). Bereziki mugikorrak lapurtu dira, eta poliziek horietako asko berreskuratu dituzte.

Nabarmentzekoa da, halaber, sexu-abusuagatiko salaketak 16 izan direla, eta **egileen % 90 atxilotu zituztela**.

	2022	2019	2018	2017
Segurtasun kidego guztiek jasotako salaketak	1.969	2.005	1.906	1.671
Lapurreta indarra erabilita	47	70	103	96
Lapurreta indarkeria erabilita	23	45	33	44
Tratu txarrak familian	15	27	27	18
Sexu-erasoa	1	2	--	2
Sexu-abusua	16	10	6	12
Lesioak	79	63	48	55
Agintaritzaren agenteen kontrako atentatua, erresistentzia, desobedientzia	15	26	15	12
Osasun publikoaren aurka	18	5	7	5
Atxilotze-agindua / Pertsonatzea / Espetxean sartzea	5	5	6	5
Kalteak	42	34	53	41
Ebasketak	1.302	1.279	1.219	1.020
Atzerriartasunarekin lotutakoak	1	6	2	2
Gainerakoak	405	433	383	351

Udaltzaingoaren salaketak arau-hauste administratiboak direla-eta. Aipatzekoak dira bide publikoan txiza egiteagatik jarritako 301 salaketak.

	6	7	8	9	10	11	12	13	14	Guztira
Bide publikoan txiza egiteagatik	105	59	34	45	36	2	10	9	1	301
Herritarren Segurtasunaren inguruko 4/2015 Legea	33	54	14	32	19	16	14	16	7	205
Ostalaritza: Ordutegiak, musika, ateak zabalik		3		6	6		1	1	3	20



ZIRKULAZIOA ETA ETILOMETRIAK

39 istripu. Aurtengo sanferminetan 39 istripu izan dira, horietatik 3 harrapatze-istripuak, eta orotara 4 lagun arin eta 1 larri zaurituta izan da.

Etilometria eta droga-kontrolak. Bestalde, Udaltzaingoak hainbat etilometria eta droga-kontrol egin ditu, jaietan alkohola edota beste droga mota batzuk hartu ondoren autoa erabili dutenak zigortzeko eta halako portaerak galarazteko. 3.620 etilometria-proba baino gehiago egin dira, eta horietatik 36 positiboak izan dira eta administrazio-salaketak jaso dituzte, hau da, guztizkoen % 1; 7 salaketa epaitegietara bideratu dira. Drogak atzemateko probei dagokienez, 8 egin ziren, horietatik 2 positiboak izan ziren, eta administrazio-salaketak jaso zituzten.

LARRIALDIKO OSASUN-GARRAIOEK ERAMANAK FESTA-INGURUAN

Garraiatutakoak, guztira, 484 izan ziren. Nabarmenezkoa da alkohol-intoxikazioaren ondorioz eramandakoak, 100 izan baitira, kasu guztien % 20. Adierazgarria da, halaber, Nafarroako Unibertsitate Ospitalera eramandako 246 lagunetatik, 23 San Martin doktorea anbulatoriora eramanez eta 63, intoxikatuak artatzeko Gurutze Gorriaren zentrora (koktel-ontzia esaten zaio), eta horrek nabarmen arindu du ospitalearen presioa.

UDALTZAINGOAREN BESTE JARDUKETA BATZUK

Jazoera baten aurrean, herritarrek eskatuta. Udaltzaingoaren Ekintzen Koordinazio Zentrotik Udaltzaingoaren patruilak mobilizatu dira herritarren 1.201 eskariri erantzunez. Zifra horrek % 10eko igoera dakar 2019ko datuen aurrean.

Objektu galduak. 2022ko sanferminetan 1.021 objektu sailkatu dira. 2019an 1.220 izan ziren, hau da, aurtengo % 16,3 gutxiago izan dira. Horietatik 271 jabeek berreskuratu dituzte. Dokumentazioaren bat edukita identifikatu izan direnei dagokienez, oharra bidali zaie, gutun bidez, 222 jabeeri, eta SMS bidez beste 43ri

Ganadu-feria. Urtero bezala, uztailaren 7an San Ferminen Ganadu-Feria egin da. Bertan 314 animalia izan ziren ikusgai, 75 ganaduzalek aurkeztuta. Guztira 82 animalia saldu ziren.

ENTZIERROKO LASTERKARIAK

13.100 korrikalarik parte hartu dute 2022ko sanferminetako zortzi entzierroetan, 2019an baino % 5 gutxiago, baina kontuan hartu behar da urte hartan bi asteburu izan zirela.

Eguna	2022 Eguna	Guztira	2019 Eguna	Guztira	2018 Eguna	Guztira	2017 Eguna	Guztira
7	Osteguna	1.700	igandea	2.300	larunbata	2.094	ostirala	2.504
8	Ostirala	1.700	astelehena	1.900	igandea	2.014	larunbata	2.984
9	Larunbata	1.900	asteartea	1.700	astelehena	1.758	igandea	2.501
10	Igandea	2.000	asteazkena	1.300	asteartea	1.924	astelehena	1.995
11	Astelehena	1.500	osteguna	1.400	asteazkena	1.522	asteartea	1.933
12	Asteartea	1.500	ostirala	1.400	osteguna	1.639	asteazkena	2.140
13	Asteazkena	1.300	larunbata	1.700	ostirala	1.521	osteguna	1.724
14	Osteguna	1.500	igandea	2.100	larunbata	1.638	ostirala	1.345
	Guztira 2022	13.100	Guztira 2019	13.800	Guztira 2018	14.110	Guztira 2017	17.126



2022An, korrikalari gehienak Espaniarrak izan dira; aurreko urteetan, aldiz, atzerriko nazionalitateak ziren nagusi

JATORRIA

Iruña	% 24
Nafarroako beste toki bat	% 6
Espainiako beste toki bat	% 38
Australia eta Zeelanda Berria	% 3
Estatu Batuak	% 16
Frantzia	% 4
Erresuma Batua	% 2
Hegoamerika	% 3
Beste batzuk	% 4

Banaketa, adinaren eta jatorriaren arabera

JATORRIA	Korrikalarien ehunekoa adin-tartearen arabera		
	18-35	35-55	>55
Iruña	85,19	11,64	3,17
Nafarroako beste toki bat	84,09	13,64	2,27
Espainiako beste toki bat	72,13	23,00	4,53
Australia / Zeelanda Berria	76,19	23,81	0,00
Estatu Batuak	65,00	26,67	8,33
Frantzia	73,33	26,67	0,00
Erresuma Batua	66,67	26,67	6,67
Beste batzuk	70,00	30,00	0,00
Hegoamerika	65,22	30,43	4,35

Adarkatuak

2022ko entzierroetan sei lasterkari izan dira zezenek adarkatuta. Horretaz gain, beste 35 lasterkari ere eraman zituzten osasun zentroetara erorikoen, zapaltzeen zein bestelakoen ondorioz.



‘PAMPLONA LIBRE DE AGRESIONES SEXISTAS/ÉRASO SEXISTARIK GABE, IRUÑA ASKE’

Gazteluko plazako eraso sexisten aurkako argibide-gunea: 17.075 lagun joan dira informazio bila, eta 106 gorabeheraren berri jaso da.

uztailak 5:	1.814 pertsona.
uztailak 6:	2.198 pertsona.
uztailak 7:	2.632 pertsona.
uztailak 8:	2.283 pertsona.
uztailak 9:	1.796 pertsona.
uztailak 10:	1.639 pertsona.
uztailak 11:	1.293 pertsona.
uztailak 12:	1.180 pertsona.
uztailak 13:	1.100 pertsona.
uztailak 14:	1.140 lagun

Gorabehera-kop.: 106 (horietatik % 24 ukituak egiteagatik)

Lagun-egite zerbitzuaren aktibazio-kop.: 1

Deitutako mobilizazioen kop.: 1

Sanferminetan eraso sexistei aurre egiteko prebentzio-kanpaina

Zenbait material erabilgarri paratu dira argibide-gunean, Udalaren webgunean eta *San Fermin Iruña* mugikorrerako aplikazioan. Halaber, material horiek banatu dira geltokietan eta aireportuan, hoteletan, tabernetan, dendetan, kanpinetan, festaguneetan, peñetan, HIESAren aurkako Batzordean, Gazteriaren Kontseiluan, garraiobideetan...

Euskarriak:

- Udalaren bandoak gonbit egiten die herritarrei emakumeen kontrako edozein erasoren aurrean herritarrei aktibo jokatzeko eta horrelako jokabide sexistak ez onartzeko eta jazartzeko. Udal-bandoan mantendu da lelo edo eduki sexistak dituzten materialak saltzeko debekua
- Neurri handiko 3 esku gorri paratu dira Bake plazan, Karlos III.aren etorbidean eta Gipuzkoako etorbidean
- Kanpainaren irudia txertatu da udal-agertokien olanetan, txupinazoaren trenean, turistendako argibide-guneetan, autobus-geltokian, tren-geltokian eta aireportuan.
- Kanpaina agertu da 9 hiri-autobusetan eta taxietan, Iruñerriko Mankomunitatearen, TCCren eta Teletaxi Sanfermin enpresan.
- Kanpainaren irudia mantendu da Udalaren edalontzi berrerabilgarrietan



- Kanpainaren irudia eta baliabideak agertu dira Udalaren eta Sanferminen sare sozialetan, baita webgunean eta app-ean ere.
- Kanpainari buruzko bideo bat egin da (sare sozialetan, trenetan, Udaletxe plazako pantaila iraunkorrean, Gazteluko plazako mupi digitalean hedatu da).
- Kazetaritza-praktika onen dekalogoia egin da Prentsarako Nazioarteko Bulegoak akreditatutako kazetariendako.
- 2.150 kartel (QR kodeak sartuta kanpainako informazioari eta haren baliabideei eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonendako egokitutako gidaren informazioari)
- 55.000 informazio-gida
- 36.000 pin
- 25.000 pegatina
- 10.000 txartel, erasoren bat jasoz gero erabilgarri dauden baliabideei buruzko informazioarekin, Udaltzaingoak eta Babes Zibileko laguntzaileek banatzeko.

Agentekak

Kanpaina Iruñeko Udalak, Emakumeen Udal Kontseiluak eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko talde iraunkorrak koordinaziopean eta adostuta egin da.

Sanferminetako eraso sexisten aurrean herritarrek eta erakundeek erantzuteko protokoloaren lan-esparruan, Koordinazio Batzorde Teknikoa egunero bildu da, eta erasoei eta bestelako gorabeherei buruzko datuak bildu ditu. Batzorde horretan Berdintasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Udaltzaingoko zuzendaritzek eta teknikariek parte hartu dute.

Udala eta mugimendu feminista koordinatu egin dira herritarren eta erakundeen erantzun-deialdia egiteko, hilaren 12an, 17:30ean, Gazteluko plazan, sanferminetan izandako eraso sexisten aurkako koordinazio- eta erantzun-protokoloaren esparruan.

Entitate laguntzaileak *“Pamplona libre de agresiones sexistas/Eraso sexistarik gabe, Iruña aske”* estrategiarekin:

AENA, ANAPEH, Nafarroako Ostalaritza Elkarteak, Tele Taxi San Fermín elkarteak, Iruñeko merkatarien elkarteak, CERMÍN, Autobus-geltokia, Iruñerriko Mankomunitatea, Turismo Bulegoa, Nazioarteko Prentsa Bulegoa, RENFE, TCC.



GARBIKETA

Zabor-bilketari buruzko datuak, uztailaren 13an: 1.180.240 kilo

- Beira: 570.960 kilo (% 19,21ko gorakada)
- Zaborra: 334.940 kilo (% 4,09ko murrizketa)
- Ekorketa: 274.340 kilo (% 0,23ko murrizketa)

Beira gehiago, eta zorua ekortzean bildutako zabor gutxiago

Beirak erabat baldintzatzen du bildutako pisuari buruzko azken balantzea. Beira asko dagoela egiaztatu da, bai edukiontzi espezifikoetan (beiraren atala), bai lurrian eta paperontzi gorrietan, batez ere garagardo-botilatxoetan (ekorketa atala). Ekorketa bidez bildutako beira kopuru handi hori gorabehera, pisua murriztu egin da, eta, horri esker, esan daiteke bide publikoan bildutako zabor kopurua aurreko urteetako baino txikiagoa izan dela, nahiz eta, bisualki, kaleen itxura ez den gehiegi aldatu, eta hondakinak kentzeko egin beharreko ahalegina eta bitartekoak aurreko urteetako berberak izan behar direla.

Bilketaguneetan zaborra uzteko jarraibideen eta poltsak edukiontzietan sartzearen aurrean ostalaritzak emandako erantzuna zuzena izan da, eta bide publikoa errazago hustu eta garbitu da.

Birziklatze gehiago. Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, 1.000 litroko edukiontzi gorriak jarri dira Gazteluko plazan eta Gaztelugibeleko landan (su-artifizialearako eremuaren inguruan), bertan plastikozko hondakin ugari sortzen baitira (ontziak, batez ere). Halaber, Gazteluko plazan, Karlos III.aren etorbidean, Orreaga etorbidean eta autobus-geltokiko landan sortutako hondakinak gaika bildu dira (beira eta gainerakoa), iaz egin zen bezala, eta Sarasate pasealekua eta zezen-plazaren inguruak gehitu dira, bertako hondakin gehienak plastikozko ontziak baitira. Horrela lortu da ekorketan bildu eta plantan tratatu daitekeen zabor kopurua ekorketa osoaren % 10 izatea. Datorren urtean ekimena beste gune batzuetara hedatzen jarraitzea aztertuko da.

Aurreko urtean bezala, 2019an, beira eskuz bildu da hori egingarriagoa den ingurunean: Gazteluko plaza, Karlos III.a, zezen-plazaren ingurua, Lizarra kalea, Baluartekeko plazaren ingurua, Sarasate pasealekua.

285 langile eta 69 makina. Garbiketako udal-zerbitzua indartu egiten da sanferminetan: urtean zehar, 110 lagunek egiten dute lan hori astelehenetik ostiralera, eta festetan, berriz, 250 langile aritzen dira garbiketa-zereginetan. Bestalde, 69 ibilgailu eta makina erabiltzen dira garbiketa-lan horietan. Dispositiboak arrakasta handia izan du, batez ere uztailaren 7an eta 10ean, kaleetan jende asko eta zabor ugari bildu direlako, bai paperontzietan, bai lurrian bertan.

Oso azpimarragarria izan da pertsona guztien gizalegea eta era guztietako langileekiko izan duten jokabidea; izan ere, gizalegerako mezuak eta deiak, horri buruz egindako kanpaina eta



portaera egokiarekin bateraezina ez den dibertimendua lortzeko desio orokorra aipatu dira kausa posibletzat.

Entzierroaren ibilbidea garbitzeko, Udaltzaingoaren eta Foruzaingoaren ekimen bat izan da; izan ere, garbiketa-makinei ingurua ziurtatuz lagundu beharrean, lan-korridore zabalak sortu dituzte, eta, horren ondorioz, segurtasun handiagoa lortu dute langile eta publikoarendako, eta lan-errendimendua izugarri handitu da, eta askoz ere giza baliabide eta baliabide mekaniko gehiago lehenago askatu dituzte Alde Zaharrean eta jai-ingurunean arreta emateko.

Garbiketaren arloko puntu beltzak. Garbiketari loturik aipatutako alderdi gehienak positiboak badira ere, badira alderdi negatiboak, bide publikoan txiza egiteak dakarren usain txarra, besteak beste. Aurten ere, probak egin dira hala usaina kentzeko produktuez nola usaina bera agertzea hein handi batean galarazten duten beste produktu batzuez. Bereizgarri jo diren leku batzuetan lortutako emaitzek bide ematen dute halako produktuen erabilera orokortzea planteatzeko, datorren urteari begira.

Edozein kasutan, gizatasunaren aldeko deia egin beharko da, arazoaren jatorria saihesteko, hondakinekin egiten eta lortzen ari den bezala.

Berdeguneen, Eraikinen, Argiteriaren, Obren, Altzarien eta Ibilgailu-parkearen Zerbitzuei dagozkien taldeek arazorik gabe erantzun diete beren eremuetan izandako gorabehera txikiei: adarrak haustea Taconera parkean, Armadaren etorbidean, Gazteluko plazan, zakarrontzi batzuk kentzea, bide publikoko komunetan buxatzeak, eta abar.



EDALONTZI BERRERABILGARRIAK: 500.000 INGURU

Aurten (datuak uztailaren 13an) **486.476 edalontzi berrerabilgarri** banatu dira; hor lokalek biltegietan zeuzkaten edalontziak gehitu behar dira. Gaur, eta behin-behineko datuekin bat, 123.480 edalontzi garbitu direla esan ahal dugu. Aste honetan eta hurrengoan edalontzi gehiago garbituko dira; izan ere, gaur, astelehenarekin, edalontziak biltzen hasi dira jaiak amaitu ostean. Edalontzia 94 tokitan izan da, hala nola hauetan: lokal pribatuak, udal-esleipenak eta jai-guneak. Edalontziak presentzia handiagoa izan du zezen-plazan, Nafarroa Oinezeko gunean eta peñetan.

Edalontzi gehien garbitu zen eguna uztailaren 10a izan zen (igandea, larunbatean bildutakoa garbitu zen eguna), 23.661 edalontzirekin; atzetik uztailaren 8a (22.680 edalontzi) eta 9a (21.399 edalontzi).

Edalontzi berrerabilgarria egunean 5 aldiz erabil daitekeela kalkulaten da, eta horrek botatzekoak diren 5 edalontzi ez erabiltzea dakar. Gutxi gorabehera **2.500.000 erabilpen** izan dira; hortaz, baliabideak (petrolio, energia eta ura) aurreztu dira, atmosferara egin ez diren isurpenez gain.

OSASUNA

IKUSKAPENAK

160 elikagai-ikuskapen. Iruñeko Udaleko Elikagai Ikuskaritzak 85 jarduera ikuskatu ditu, guztira, eta 136 ikuskapen egin. Kopuruak % 10,56ko igoera dakarkio 2019ko ikuskapen-zenbatekoari. Toki hauetan egin dira ikuskapenak: Runa feria-lekuko jatetxeetan, Antoniuttin, Eskualde Etxeen gunean, Basotxoan eta Iruñeko peñen lokaletan, Foruen eta Gurutzeko plazetako kontzertu-tokietan, tabernetan, jatetxeetan eta ostalaritza eta elikagaiekin zerikusia duten bestelako jarduera egonkor zein ez-egonkorretan. Ikuskapen horien guztien artean 130 akats aurkitu dira, gehienak instalazioetan eta ekipamenduetan, elikagaien higieneari buruzko prestakuntza faltan eta kontsumitzaileari elikagaietako alergenoei buruzko informazio faltan.

Errekerimenduak zarata dela medio. Zaraten kontrolari dagokionez, sanferminetan 2.534 zarata-kontrol egin dira establezimenduetan eta bide publikoan, **eguneko 300 kontrol baino gehiago**, 2019ko kopurua baino % 18 handiagoa. **649 kasutan, soinua altu edo oso altu zegoen.**

	UZTAIL AK 6	UZTAIL AK 7	UZTAIL AK 8	UZTAIL AK 9	UZTAIL AK 10	UZTAIL AK 11	UZTAIL AK 12	UZTAIL AK 13	GUZTIRA
EGINDAKO IKUSKAPENAK	317	324	325	318	304	317	313	316	2.534
ZUZENAK	234	243	246	228	204	231	250	249	1.885
MUSIKA ALTUA	72	62	50	60	77	59	42	40	462
MUSIKA OSO ALTUA	11	19	29	30	23	27	21	27	187

Uztailaren 6, 7, 8 eta 9an, arau-urraketak antzeman dira, izan kanpoaldean bozgorailuak zeudelako, bozgorailuak kanporantz bideratuta zeudelako, edo musika-isurpen maila altua zelako. Uztailaren 10etik 14ra bitarte ikuskaritza mantendu da, eta zenbait kasutan egiaztatu da ohartarazitako lokalek hautemandako arau-urraketak zuzendu dituztela; asteen zehar gehiegizko zarata-guneren bat agertu da, edo arau-urraketa bat bozgorailuen kokapenari dagokionez.



Jaiaren erdigunean, **Aide Zaharrean**, kalez kale balorazioa eginez, punturik beltzenak berriz ere San Nikolas kalean, Estafeta kaleko goiko aldean eta Erriberri kaleko terraza-eremuan egon dira. Aurten kalera zuzendutako bozgorailu gutxiago antzeman dira erantzukizuneko aitorenaren bidez festetan edariak eta arropa edo osagarriak saltzen dituzten establezimenduetan. Hori antzeman den kasu guztietan, establezimenduak itxi dira. Baimenik gabe musika zuzenean eta megafonia-bolumen altuarekin eman duten kasuek gora egin dute.

Ura. Ingurumen Osasunerako zerbitzuak egunero laginak hartzen ditu iturri publikoetan, azterketa kimiko eta bakteriologikorako, sanferminetan jendetsuenak izaten diren tokietan. Inon ez da gorabeherarik egon. Uztailaren 6tik 14ra, Hiri Altzarietako zerbitzuak egunero garbitu ditu Iruñeko erdiguneko iturrietako hodi guztiak, haien osasun-egoera bermatze aldera.

Udalaren jabetzako igerilekuen ikuskaritza. Sanduzelaiko kirol-hiria eta Arantzadi kirol-hiria. Ura ikuskatu eta aztertu egiten da han bertan, jaien aurreko egunetan eta sanferminetan. Kasu guztietan emaitzak egokiak izan dira.

Animalien kontrola. Zoonosi Zerbitzuak 7 txakur jaso ditu, eta horietatik 3 jabeei itzuli zaizkie. Lau katu jaso dira, eta jabeei itzuli zaizkie. 2019ko sanferminen aldean, jasotako txakur- eta katu-kopuruak antzekoak dira. Zakur-hozkadei dagokienez, esku-hartze bat egon da, eta basafaunaz bezainbatean, aurten ez da gorabeherarik egon.

Saneamendu-sareko lotuneak. Aurreko egunetan, uztailaren 1etik 4ra, sanferminetan jartzen diren jarduera ez-iraunkor guztietako ur-harguneetan lotuneak ongi daudela egiaztatu zen; toki horiek dira, adibidez, baimendutako komunak eta dutexak, Runa parkeko barrakak, kaleko tabernako barrak eta ferietako autokarabanetako harguneak.

DUTXAK ETA KOMUN PUBLIKOAK

1.869 dutxa uztailaren 14ra arte. Dutxa zerbitzu kopurua nabarmen murriztu da aurten beste urteekin alderatuta, jaietan bero handia izan dugun arren. 2019an dutxa kopurua 2.795 izan zen epe berean. Zerbitzu kopurua jaitsi da, bai Eslava kaleko bainuetxean (29%), bai Antoniuttikoan (42%). Ez da gorabehera garrantzitsurik egon.

470 komun publiko. Sanferminetan, guztira, 470 komun egon dira erabilgarri etengabe, uztailaren 6tik 14ra bitartean. Saneamendu sarearekin konektatutako kabinak eta Gazteluko plazako kamioia 24 orduz egon dira irekita (uztailaren 6ko goizeko 08:00etatik uztailaren 15eko goizeko 08:00ak arte). Jaien aurreko egunetan ordutegi bereziak ezarri ziren, komun finkoetan, Antoniuttiko ferietako salerosleendako –feriak muntatzen ari ziren bitartean– baita Basotxoko salmenta-postuetarako ere. Guztiek etengabeko zaintza eta garbiketa izan dute, Trinitarioseko moduluak eta azienda-feriakoak salbu. Modu osagarrian eta baliabide hori handitze aldera, multzokako komun kimikoak paratu dira hainbat tokitan, hala nola kontzertuetako guneetan eta kolektiboek paratutako festaguneetan.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

Servicio de Comunicación

IRUÑEKO UDALA

Komunikazio Zerbitzua

IKUZTEGIA

Polizia kidegoek eskatuta (Udaltzaingoa eta Foruzaingoa) ikuztegia abiatu da, atxilotuei ematen zaizkien mantak autoklabe bidez desinfektatu, garbitu eta lehortzeko.



TURISMOA

Bisitari-kopuruaz bezainbatean, Iruñeko Udalaren eskariz gailu mugikorren jarraipenean oinarritutako ikerlan batek adierazitakoarekin bat, uztailaren 1etik 14ra 462.172 bisitari bakar antzeman dira hirian, eta horietatik, gutxienez 430.00, Iruñean egon dira uztailaren 6tik 14ra.

Egun bakoitzeko pertsona kopurua ezberdina da eta asteburuan, 8 eta 10 bitartean, eman da kopururik handiena; egun bakarrean antzeman den pertsona kopurua 200.000 baino pixka bat gutxiago izan da. Guneka ere asimetrikoa da hedapena, hala nola 250.000 lagun Gazteluko Plazan, Udal plazan, Entzierroaren monumentuan, Ahumada Dukearen kalean, Merkaderesen eta Estafetan, eta 50.000 bisitari Katedrala eta Compañía plazaren inguruetan.

Turismo-bulegoak 1.694 bisitari jaso ditu egun hauetan (966 komunitate autonomoetakoak, gehienbat Nafarroa, Euskadi eta Kataluniakoak, eta 728 beste herrialde batzuetakoak, batez ere Frantzia, Estatu Batuak eta Belgikakoak). Turistak dira nazioarteko bisitarietatik % 53, eta Espainiakoetatik % 46,6, hau da, gaua hirian ematen dutenak. Bi-bietan, turismo bulegora hurbildu direnetatik % 32 txangozaleak edo egun bateko bisitariak izan dira.

Iruñeko Hotelen Elkarteak hotel-okupazioari buruz emandako aurretiazko datuen arabera, hirian gaua eman zuten bezeroen % 55 Espainiakoak ziren, eta % 45 atzerritarrak, jatorriz Estatu Batuetakoak, Frantziakoak eta Mexikokoak. Orotara, erdialdeko establezimenduetan, festetako 9 egunetatik seitan, batezbesteko okupazioa % 92tik gorakoa izan zen (uztailaren 6tik 9ra eta uztailaren 11n eta 12an). Uztailaren 13an jaisten hasi zen (% 80), eta 14an % 53 izan da. Iruñerrian % 90 baino gehiagoko batz besteko okupazio-portzentaia beranduxeago hasten da, uztailaren 8an, eta 4 egunez luzatzen da. Uztailaren 14an okupazioaren batz bestekoa % 14 da.



SANFERMINAK SARE SOZIALETAN ERE BIZI DIRA: IA 4.5 MILA MILIOI INPAKTU TWITTERREN ETA 10.000 POST INSTAGRAMEN

Sanferminei buruzko hizketaldiak ia 4.000 milioi inpaktuen kopurua gainditu du Twitterren 2022an. Aurten ere Iruñeko Udalak Tweet Binder nafar tresnarekin osatu du sare sozialetan festak duen eragina jakiteko txostena. Ikerketaren arabera, 2022ko sanferminek 4.415.693.351 inpaktu sortu dituzte. Zenbaki hau errekorra da, 2019an 3.999.899.435 izan zirelako, eta 2018an berriz, 3.723.333.450.

Orotara, sanferminei buruzko 152.241 txio bidali dira 76.728 kontuetatik. Guzti horietatik, tokiko komunikabide nagusiak eta nazioarteko hedabide handiak nabarmentzen dira, hala nola @CNN, @nytimes eta @BBCWorld.

Jarduera egunero erregistratzen den arren, lehen hiru jai-egunetan eman ziren berriz ere mezu kopuru handienak: 21.158 txio berri eta 1.883.554.365 inpaktu baino gehiago. Aurrekoetan gertatu zen bezala, bi une nabarmentzen dira batik bat: Txupinazoa eta 7ko lehen entzierroa, berriz ere goia jo baitzuen goizeko 7 eta erdiak eta 8 eta erdiak bitartean.

Aurten lehen aldiz eman du Txupinazoa Iruñeko Udalak Youtubeko streaming bidez. Jaiak hasi zirenean 1.000 erabiltzaile baino gehiago bildu ziren batera 6an eguerdiko 12etatik aurrera Youtuben eta orain arte 11.502 aldiz ikusi da. Instagram berriz, jaietako irudiz eta bideoz josi da egun hauetan. Gaur arte, 10.000 post baino gehiago partekatu dira #2022koSanferminak traola erabili duten kontu publikoetatik.

KOMUNIKABIDEAK: 360 PROFESIONAL BAINO GEHIAGO AKREDITATU DIRA JAIEN BERRI EMATEKO

Akreditatuak: mundu osoko 102 komunikabideko 360 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera, jaien berri ematera. Nazioko komunikabideez gain, akreditatutako kazetariak honako herrialde hauetatik etorri dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Ukraina, Turkia, Guatemala eta Argentina.

Txupinazoa: 36 komunikabidetako 185 lagun akreditatuta

Entzierroak: 102 komunikabidetako 364 lagun akreditatuta

Gaixoa ni: 36 komunikabidetako 108 lagun akreditatuta

Iruñean, 2022ko uztailaren 15ean